

## FUNTSEZKO ELKARTEAK

Negozio eredu batek funtzionatzea ahalbidetzen duen eta hornitzaileak ditu funtsezko elkarteak. Atal honetan elkarte bat edo harreman bat deskribatzen du, funtzionamendu edo helburu jakin batzuetarako beharrezkoa dena. Hau da, gure enpresa aurrera ateratzeko beharko ditugun beste enpresa mota batzuk.

Gure enpresan hainbat hornitzaile mota desberdin dauzkagu, garrantzitsuena herriko azoka izango litzateke, bertan hainbat baserriekin egingo dugulako lan, adibidez: Agerre, Berroeta, Sagaspe eta Zumakorta, lau hauek aukertau ditugu, laurak herrikoak direlako. Lau baserri hauek bata bestearekin harreman handia dute, eta gure enpresa produktu naturaletan oinarritzen denez, hauek izango dira hornitzaile garrantzitsuenak. Agerre baserriak jogurta eta esnea eskeintzen dizkigu, Berroeta baserriak ogia, eta Sagaspek eta Zumakortak barazkiak. Lehengai hauekin batera garrantzistuak diren beste lehengai batzuk ditugu, haragia, Josetxo harategitik hartuta, arraina izarra arraindegitik eta lanbroa belar dendatik infusio eta jaki osasuntsuak, lehen esan dugun bezala gure helburuetako bat herriko dendak aurrera eramatea da horregatik aukeratu ditugu hiru denda hauek.

Lokalari erreparatuz, obra bat egitea dugu pentsatuta eta lokala gure herrian egongo denez bertako langileekin egingo dugu lan. Lehenik, barne disenatzailea batekin egingo dugu lan, zehazki Andrearekin, berak lokala ondo antolatzen lagunduko digu eta dena txukun-txukun utziko digu. Bigarren, obraren lan zailenari begiratzuz, Aramendi igeltseroaren eskuetan utziko dugu, berak lokaleko espazioak banatu eta eraikiko dizkigu. Baina sukaldearen diseinua eta antolaketa Fagorren eskuetan utziko dugu, hau aukeratu dugu herrian ez dagoelako sukalde industrialuk eskeintzen duen enpresarik. Zurezko ateak eta zurezko tresnak Biona enpresak burutuko eta montatuko dizkigu eta iturgintzaren gaia berriz, gure herriko Plazaola iturgintzaren eskuetan utziko dugu. Berak komuna eta sukaldeko montaketa egingo digu. Ondoren, mahi-tresnen sorkuntza Itsasoko enpresa txiki baten eskuetan utziko dugu, pott izena duena. Beraiek gure mahai-tresna, hau da, plater, edalontzi, kaiku... sortuko dizkigute. Beste alde batetik, guk sardeskak, labanak eta koilarak gure herriko dendatik erosiko ditugu, Urdangarin burdindegitik zeazki. Gainera, beharrezko izango da gure tupperren hornitzailearikin aliantza, hau da, lanbroa dendarekin; beraiei erosiko dizkiegulako tupper ekologikoak.

Gure menuak osasuntsuak direla bermatzeko eta gure bezeroei menu egokiak eskeintzeko, Montse nutrizionistarekin egingo dugu lan, berak eguneroko menua egiten lagunduko digu, dena modu ordenatu eta osasuntsu batean geratzeko.

Garrantzitsua direnak baina, baita inportatzia gutxien duenak instagram eta prosegur elkarteak dira. Behinik behin, instagramek bezeroekin harremana, informazioa eta baita egunerokoa erakustea eskainiko digu. Prosegurrekin lapurretak murriztea lortuko dugu eta horrela gure irabazi eta jakiak segurtasunez babestuta egongo dira.

Azkenik, BBVA bankuarekin harremanetan jarriko gara mailegu bat eskatzeko.